

## DIRU ITURRIAK

Gure salgaian dauden aktiboen prezioa dinamikoa izango da. Bizikletak egiteko lehengaiak garestitzen badira, gure prezioak ere gora egingo dute, eta alderantziz. Saltzen ditugun bizikletak, denak panel solarrak instalaturik izango dituzte, baina ez dira bizikleta berdinak izango.

Horregatik, posiblea da bizikletak material edo ezaugarri desberdinak izanda, beraien prezioa edo kostua aldatzea. Esan dezakegu, gure prezioak ezaugarrien araberakoak izango direla, eta denbora errealeko merkatuaren arabera; eskaintza eta eskaeraren legearen arabera ere.



Denda fisikoa izango dugu, kalean dagoen beste negozio bat bezala. Baina baita ere, denda online bat izango dugu, hortik, enkarguak edo denda jasotzeko produktuak erosi ahalko dira.

Hortaz, ordaintzeko modu asko izango ditugu. Zuzenean ordaintzeko, ezagutzen ditugun modu arruntean ordaindu ahalko da: eskudirua, debitozko, kredituzko eta aurreordainketazko txartelekin. Aldiz, online web-gunearen bidez ordainketak egin ahal izateko; PayPal edo kontu bankaria online erabiltzea posiblea izango dute bezeroek.

Gure bezeroen abantailerako, beste aukera batzuk izango dugu produktuengatik ordaintzeko; momentuan kostu osoa ordaintzeaz aparte kostu totala epeetan ordaintzeko aukera eskainiko diegu, kostu adizionalak barik. Modu berdinean, kanbio-letrak onartuko ditugu, bezeroek eskatzen badituzte.